	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2016 IRA 23	
SARRERA	IRTEERA	
2227		

OÑATIKO EH BILDU UDAL TALDEAK ARANTZAZUKO HARROBIAREN INGURUAN AURKEZTEN DUEN MOZIOA:

“2001eko Irailean, Gomiztegiko harrobia ustiatzen duen enpresak Eusko Jaurlaritzari informazio eskaera luzatu zion Arantzazuko harrobiaren anpliaziorako. Bertan Kortakogain aldera beste 95,000 m2ko azalera izango zuen ustiapen baimen berrirako informazioa eskatzen zen. Beste 50 urte ingururako harrobi jarduera, alegia.

Urte batzuetako ixiltasunaren ondoren, berriro ere Arantzazuko harrobiaren afera mahai gaineratu da. Oñatiko Udaletik, 2015eko Apirilaren 20an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailera iada bideratu zen harrobiaren handitze batek izango lituzken eraginen inguruko txosten teknikoa.

Ez deritzogu inolaz ere onargarria gaur egun Natura 2000 sarean sartuta dagoen Aizkorri Aratz Parke Naturelean ingurumenarekiko hain kaltegarria den harrobi ustiapen jarduera garatzea. 2015eko Apirilean argi adierazi zuen Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurak, harrobiaren handitze proiektuaren aurkakotasuna.

Gogoratu behar da, proposatzen den handitze eremuaren inguruari honoko babes neurriek eragiten diotela:

- Oñatiko Udaleko arau ordezkietan nekazal eta abeltzantzarako babes bereziko gune izendapena.
- Herri Onurako Mendia den aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Arau Forala.
- Naturaren babeserako 16/1994 legean oinarritutako Aizkorri Aratz Parke Naturalaren izendapena.
- 92/43CEE Europar zuzentarauan oinarrituta, Aizkorri Aratz parkearen “LIK” izendapena, “Natura 2000” sarearen baitan.

Aizkorri Aratz Parke Naturalaren KBE (ZEC) izendapenaren prozesuan irekitako alegazio epean, (2015eko Abuztuan) Udalak alegazioa aurkeztu zuen harrobiaren jarduerak Natura 2000 eremuko babeserako helburuekin erabateko talka egiten duelako. Eusko Jaurlaritzatik ez zitzaion alegazioari inolako erantzunik eman.

Bitartean, enpresa interesdunak harrobiaren handitzerako lizentziaren tramitazioarekin jarraitu du.

2016ko Abuztuan, Eusko Jaurlaritzak, harrobi berriaren ustiapen proiektua eta ingurumen inpaktuari buruzko txostena informazio publikoan jarriko zela jakinarazi zion Oñatiko Udalari. Azpimarratzekoa da Ingurumen inpaktuari buruzko txostena ez dela sarean ikusgai ipini, honek edozein herritar edo eragilek izan dezaken alegazio intereserako suposatzen duen oztopoarekin.

Oraingo honetan ere Oñatiko Udalak bere alegazioak aurkeztuko ditu hainbat arrazoieta oinarrituta:

- 1- Harrobiaren handitze baterako aukera ezberdinen azterketak, ingurumen ebaluazio eta ondorioei buruzko 21/2013 legea urratzen du.
- 2- Interes komunitarioko bertako landaredia eta animalien inguruan ez da inolako lan-azterketarik egin.

- 3- Ondorioei buruzko txostenak gutxienez 1:5.000 eskala bete behar du eta aurkeztu den txostenean Eusko Jaurlaritzaren Eunis plataformako 1:10.000 eskalako irudiaren "zoom" bat erabili da, honek dakarren informazio galerarekin.
- 4- Balizko igarobide ekologikoen inguruan ez da inolako azterketarik aurkezten. Ingurumen ondorioen txosteneko bete beharrak nabarmen urratuz. (5.3 atala)
- 5- Egungo paisaia eta ustiapenaren ondoriozko paisaiaren arteko azterketa eta alderaketarik ez da aurkezten.
- 6- Gomistegi inguruko ur baliabideetan eta sistema hidrologikoan izango lukeen eraginaren inguruko inolako azterketarik ez da aurkezten.


Laburbilduz, Aurkezten den txostena, jarduera eta eremuaren berezitasunak eskatzen duen azterketa zientifikoan oinarritu ordez, orokorkerietan oinarritzen da. Adibide gisa literalki, honela esaten da: "es poco probable que se produzcan efectos medioambientales significativos con el proyecto al que pertenece el presente documento, en el lugar Natura 2000".

Agian, Ingurumen inpaktuari buruzko txosteneko orokoreria eta azterketarik ezaren arrazoia 2006an Jaurlaritzako Ingurumen sailak, Mehatze eta Energia Zuzendaritzak eta enpresa ustiatzaileak sinaturiko akordioan bilatu beharko litzateke. Akordio honen arabera, Natura 2000 eremuaren barruan harrobiaren handitze bat baimentzen da. Goian aipatu den moduan, gune honen ezaugarri eta babes maila kontuan izanik, erabat lekuz kanpo dagoen akordioa da.

Jarduera berriak Arantzazuko Natura 2000 eremuko ingurumen, paisaia eta natur baliabideetan sortuko lituzkeen kalte larriak kontuan izanik, Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Naturaren babeserako irizpideak lehetsi ditzala eta Gomistegiko harrobiaren anpliaziorako eskaera behinbetiko bertan behera utzi dezala.

Eskaera hau, Eusko Jaurlaritzara eta Natura 2000 sarearen ardura duen Europar batzordeko Ingurumen Zuzendaritzara bidaliko da.

Oñatin, 2016ko Irailaren 27an."

A large, stylized handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.